# Xedapen Orokorrak

## HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

**731**

21/2009 DEKRETUA, otsailaren 3koa, Euskal Autonomia Erkidegoan unibertsitateaz besteko ikastetxeen sarea antolatzeko eta planifikatzeko irizpideak ezartzen dituena.

1996. urtetik aurrera Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza ezarri ondoren, urtarrilaren 30eko 26/1996 Dekretuak unibertsitateaz besteko ikastetxe publikoen berrantolaketa ezartzen zuen Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan. Geroztik, hainbat aldaketa gertatu dira bai euskal hezkuntza-sisteman, bai gizartearen alderdi askotan, eta, beraz, gomendagarria da egungo eskola-mapa berrikusi eta hobetzea, eta errealitate berriari eta datozen urteetarako aurreikusita dauden aldaketei egokitzea.

Aldaketa horien artean azpimarratzekoak dira zenbait faktoreren ondorioz ikastetxeetan izandako aldaketa ugariak. Faktore horiek honako hauek dira: azken urteotan jaiotza-tasa progresiboki errekuperatzea, hezkuntza-eskaintza Haur Hezkuntzako lehen ziklora hedatzea eta orokortzea, eskolatze-premien eta ikaspostuen eskaintzaren arteko orekarik eza, hizkuntza-ereduen bilakaera, gure hezkuntza-sistemara berandu sartzen diren pertsonak eskolatzea eta hezkuntza bizitza osoko ikasketa-prozesu moduan ulertzea.

Halaber, gizarteak lehen mailako garapen axiologiko, pertsonal, sozial, demokratiko eta ekonomikoa lortzeko asmoa duenean, hezkuntza-sistemaren lehentasunezko helburuen artean dago jende guztiak kalitatezko hezkuntzarako sarbidea eta hezkuntza hori jasotzeko aukera izatea. Kalitatezko hezkuntza horrek ekitate eta inklusioaren printzipioak bermatu behar ditu, ikasleei hezkuntza-erantzun egokia eskaintzeko modu bakarra baita, horien garapen pertsonala eta, aldi berean, gizarte-kohesioa bultzatuz.

Bestalde, Euskal Eskola Publikoari buruzko otsailaren 19ko 1/1993 Legean, ezarrita dagoenez, Euskal Autonomia Erkidegoko botere publikoen lana da irakaskuntzaren programazio orokorra egitea eta Euskal Eskola Publikoa osatzen duten ikastetxeak sortu, aldatu eta kentzea, betiere kalitatezko irakaskuntza bermatuko duen plangintza demokratiko eta parte-hartzailearen eremuan. Halaber, lege horretan arautzen da hezkuntzarako eskubidearen erabilera eta ikasleek Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialak erabiltzeko benetako gaitasuna izatea, hizkuntza biak harremane-

# Disposiciones Generales

## DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

**731**

DECRETO 21/2009, de 3 de febrero, por el que se establecen los criterios de ordenación y planificación de la red de centros docentes de enseñanza no universitaria en el ámbito de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Tras la implantación de la Educación Secundaria Obligatoria a partir del año 1996, el Decreto 26/1996, de 30 de enero, establecía la reordenación de los centros docentes públicos de enseñanza no universitaria en el ámbito de la Comunidad Autónoma del País Vasco. Los cambios y modificaciones producidos desde entonces, tanto en el sistema educativo vasco como en otros muchos aspectos de la sociedad, hacen recomendable la revisión y mejora del actual Mapa Escolar y su adecuación a la nueva realidad y a los cambios previstos para los años venideros.

Entre estos cambios destacan las numerosas modificaciones producidas en los centros docentes derivadas de la recuperación progresiva en los últimos años de la tasa de natalidad, de la generalización de la oferta educativa al primer ciclo de la Educación Infantil, del desequilibrio entre las necesidades de escolarización y la oferta de plazas, de la evolución de los modelos lingüísticos, de la escolarización de personas que se incorporan tardíamente a nuestro sistema educativo y de la concepción de la educación como un proceso de aprendizaje que se desarrolla a lo largo de toda la vida.

Asimismo, uno de los objetivos prioritarios del sistema educativo de una sociedad que pretende alcanzar un desarrollo axiológico, personal, social, democrático y económico de primer nivel es lograr que todas las personas tengan acceso y posibilidad de recibir una educación de calidad que garantice los principios de equidad y de inclusión como única forma de ofrecer una respuesta educativa adecuada al alumnado que favorezca su desarrollo personal y, al mismo tiempo, la cohesión social.

Por otra parte, la Ley 1/1993, de 19 de febrero, de la Escuela Pública Vasca, establece que corresponde a los poderes públicos de la Comunidad Autónoma la programación general de la enseñanza, la creación, modificación y supresión de los centros que configuran la Escuela Pública Vasca, en el marco de una planificación democrática y participativa que asegure la prestación de un enseñanza de calidad. Regula, asimismo, el ejercicio del derecho a la educación, la capacitación real del alumnado en las dos lenguas oficiales de la Comunidad Autónoma para que ambas puedan utilizarse como len-

tarako erabili daitezen eta erabilera ohikoa izan dadin. Gainera, IV. tituluan, I. kapituluan, irakaskuntza-zerbitzuak antolatu eta planifikatzeko lurralde-banaketarako funtsezko unitatetzat jotzen da eskola-bilgunea.

Horrez gain, Hezkuntzaren maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren arabera, hezkuntzak komunitatearen funtsezko zerbitzua izan behar du jende guztiarentzat, inolako bereizketarik egin gabe, baldintza- eta aukera-berdintasuna eskainiz, eta erregulartasuna, jarraikortasuna bermatuz eta gizarte-aldaketei progresiboki egokituz. Lege horretan ezarrita dagoenez, hezkuntzarako zerbitzu publiko hori ikastetxe publikoen eta itunpeko ikastetxe pribatuen bidez eman beharko da (108.4 artikulua).

Alde horretatik, unibertsitatez kanpoko herri ikastetxeak berriz antolatzen dituen 26/1996 Dekretuan ezarrita dagoena baino harantzago hedatu behar da. Hori dela eta, itunpeko ikastetxe pribatuak antolamendu horretan sartu behar dira erantzulekide bezala, hezkuntzaren zerbitzu publikoa emateko orduan.

Oinarrizko araudi horretan (109.2 artikulua) ezarrita dagoenez, hezkuntza-administrazioaren lana da derrigorrezko eta doako etapak ematen dituzten ikastetxeen programazioa egitea. Ikaspostuak eskaintzeko programazio horretan, hezkuntza-administrazioak, ikastetxe publikoak eta itunpeko ikastetxe pribatuak daudela kontuan izanik, jende guztiak kalitatezko hezkuntza izateko duten eskubidea eta ikasleen eskubideak eta horien familienak uztartuko ditu.

Hori dela eta, unibertsitateaz besteko ikastetxeen sarea berrantolatu eta planifikatzeko irizpideak ezarrita, zehaztuko da zein izango den irakasmaila eta etapa guztietako hezkuntza-eskaintza, eta kasuan-kasuan bilgune, zonalde edo udalerri bakoitzeko ikaspostuen premiak zehaztuko dira. Eskaintza hori zehazten denean, kontuan izango dira itundu beharreko etapa edo irakasmailetako ikastetxe publikoak eta itunpeko ikastetxe pribatuak.

Badira dekretu honetan garatutako unibertsitateaz besteko ikastetxeen sarea antolatzeko eta planifikatzeko irizpideak gidatzen eta inspiratzen dituzten funtsezko printzipio batzuk:

– Eskola-mapa ikaspostuen eskaintza planifikatzeko tresna bezala ulertzea, betiere ikasle guztiak barne hartuko dituen kalitatezko hezkuntza-erantzunaren zerbitzuan.

– Ekitatea, ezinbesteko printzipioa baita ikasle guztiei aukera-berdintasuna bermatzeko, jende guztia hezkuntza-sisteman sartzeko eta helburu horiek lortzeari begira ikastetxe guztien ezinbesteko elkarrerantzukizuna izateko.

– Hezkuntza-eragile guztien parte-hartzea, plangintza demokratikoa eta herritarren hezkuntza-premiei begira egokia izango dena mamitzeko.

guas de relación y uso ordinarios. Y en su título IV, capítulo I, define la circunscripción escolar como la unidad básica de división territorial para la organización y planificación de los servicios docentes.

Además, la Ley Orgánica 2/2006, de 3 de mayo, de Educación considera el concepto de servicio público de la educación como un servicio esencial de la comunidad, que debe conseguir que la educación escolar sea accesible a todas las personas sin ningún tipo de distinción, en igualdad de condiciones y oportunidades con garantía de regularidad, continuidad y adaptación progresiva a los cambios sociales. Dicha ley dispone que la prestación de este servicio público de la educación se realice a través de los centros públicos y los centros privados concertados (artículo 108.4).

Desde dicha consideración se hace necesario ampliar la ordenación de centros docentes más allá de lo establecido en el Decreto 26/1996 de reordenación de centros docentes públicos de enseñanza no universitaria, incluyendo en la misma a los centros docentes privados concertados como corresponsables en la prestación del servicio público de la educación.

En la citada normativa básica (artículo 109.2) se establece que corresponde a la Administración Educativa realizar la programación de centros docentes que imparten las etapas obligatorias y gratuitas. En dicha programación de oferta de plazas escolares, la Administración Educativa, teniendo en cuenta la existencia de centros públicos y privados concertados, armonizará el derecho de todas las personas a una educación de calidad con los derechos individuales del alumnado y sus familias.

Por tanto, el establecimiento de los criterios de reordenación y planificación de la red de centros docentes de enseñanza no universitaria definirá la oferta educativa en todos los niveles y etapas, concretando las necesidades de plazas escolares en cada circunscripción, zona o municipio según corresponda. En la concreción de dicha oferta se tendrán en cuenta todos los centros docentes públicos y privados concertados en aquellas etapas o niveles que sean objeto de concierto.

Varios son los principios básicos que guían e inspiran los criterios de ordenación y planificación de la red de centros docentes de enseñanza no universitaria desarrollados en este Decreto:

– La concepción del Mapa Escolar como un instrumento de planificación de la oferta de plazas escolares al servicio de una respuesta educativa de calidad e integradora para todo el alumnado.

– La equidad, principio indispensable para garantizar a todo el alumnado la igualdad de oportunidades, la inclusión de todas las personas en el sistema educativo y la necesaria corresponsabilidad de todos los centros docentes en la consecución de dichos objetivos.

– La participación de todos los agentes educativos en la realización de una planificación democrática y adecuada a las necesidades educativas de la ciudadanía.

– Herri-erakundeen lankidetza eta elkarrerantzukizuna, hezkuntza-sistema ezinbestekoak diren giza baliabideez eta baliabide materialez hornitzeko; baliabide horiek programazio zuzena eta baliabideen eskuragarritasuna bermatzeko modukoak izan behar dira.

– Baliabide horien arrazionalizazio eta optimizazioa, hezkuntza-sistema bere helburuak lortzeko eraginkorra izatea bermatzen baitute.

– Azkenik, malgutasuna izatea, hezkuntza-eskaintza Euskal Autonomia Erkidegoko errealitate sozial, demografiko eta geografiko desberdinei egokitzeko eta moldatzeko orduan.

Horri jarraiki, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoarekin bat etorriz eta 4/2005 Legeak –otsailaren 18koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerakoa- aurreikusten dituen izapideak egin ondoren, betiere Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuak proposatuta eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2009ko otsailaren 3an egindako bilkuran eztabaidatu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATU DUT:

***1. artikulua.***– Zertarakoa eta aplikazio-eremua.

Dekretu honen helburua da Euskal Autonomia Erkidegoko eskola-mapa osatzen duten unibertsitateaz besteko ikastetxeen, publikoen zein itunpeko ikastetxe pribatuen sarea antolatzeko eta planifikatzeko irizpideak ezartzea.

***2. artikulua.***– Unibertsitateaz besteko ikastetxeen sarea lurralde historikoen ezaugarriei egokitzea.

1.– Eskola-mapari buruzko proposamena zehazterakoan, kontuan hartuko dira Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde historikoak zatitzen dituen bilgune eta zonalde bakoitzaren ezaugarri eta berezitasunak, baita dauden eremu hiritar, erdi-hiritar eta landatarrak ere, eta horietara egokituko da.

2.– Ikastetxeen Zuzendaritzak, Hezkuntzako lurralde-ordezkariekin koordinatuta, eta dekretu honetako printzipio eta irizpideen arabera, diseinatu, doitu, aldatu eta benetako premiei egokituko dizkie ikastetxeen egoerak eta ibilbideak.

3.– Zenbait faktoreren arabera egin ahal izango dira aldaketak eta egokitzapenak, hala nola, udalerrien bilakaera demografikoa, ikastetxeen matrikula eta irakaskuntzen eskaintza, eta, kasu bakoitzean eta eskumena duen organoaren aurrean, planteatuko da aurrera eramatea ikastetxeen bategitea, integrazioa, atxikipena, jardueraren etendura, banaketa, zatiketa edo sorrera.

4.– Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak ezarriko ditu horretarako egokiak diren prozedurak, eta horien artean sartuko da azaldutako prozesuek uki ditzaketen ikastetxeei aldez aurretik entzunaldiaren izapidea ematea, beti ere kontuan izanik prozesu horiek aldi baterako eta itzulgarriak direla.

– La colaboración y corresponsabilidad de las Instituciones Públicas en dotar al sistema educativo de los medios humanos y materiales necesarios que garanticen una correcta programación y disposición de los recursos.

– La racionalización y utilización óptima de dichos recursos como garantía de eficiencia del sistema educativo en el logro de sus objetivos.

– Finalmente, la flexibilidad a la hora de adecuar y adaptar la oferta educativa a las diferentes realidades sociales, demográficas y geográficas de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

En su virtud, a propuesta del Consejero de Educación, Universidades e Investigación, de acuerdo con la Comisión Jurídico Asesora de Euskadi, una vez realizados los trámites previstos en la Ley 4/2005 de 18 de febrero para la Igualdad de Mujeres y Hombres, y previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su sesión celebrada el día 3 de febrero de 2009,

DISPONGO:

***Artículo 1.***– Objeto y ámbito de aplicación.

El objeto del presente Decreto es el establecimiento de criterios para la ordenación y planificación de la red de centros docentes no universitarios, tanto públicos como privados concertados, de la Comunidad Autónoma del País Vasco que configuran su Mapa Escolar.

***Artículo 2.***– Adaptación de la red de centros docentes no universitarios a las características de los distintos Territorios Históricos.

1.– La concreción de la propuesta de Mapa Escolar tendrá en cuenta y se adaptará a las particularidades y especificidades de cada circunscripción y/o zona en que se dividen los diferentes Territorios Históricos de la Comunidad Autónoma del País Vasco y a la existencia de áreas urbanas, semi-urbanas y rurales.

2.– La Dirección de Centros Escolares, en coordinación con los Delegados y Delegadas Territoriales de Educación y en función de los principios y criterios establecidos en este Decreto, diseñará, ajustará, modificará y adaptará las situaciones y los itinerarios de los centros educativos a las necesidades reales.

3.– Las modificaciones y adaptaciones se podrán realizar en función de la evolución demográfica de los municipios, de la matrícula de los centros y de la oferta de enseñanzas, planteándose, en cada caso y ante el órgano competente, llevar a cabo la fusión, la integración, la adscripción, la suspensión de actividad, la segregación, la división o la creación de centros docentes.

4.– El Departamento de Educación, Universidades e Investigación establecerá a tal efecto los procedimientos correspondientes, entre los que se incluirá un trámite de audiencia previa a los centros que puedan resultar afectados por los procesos descritos, contemplando siempre la transitoriedad y reversibilidad de los mismos.

***3. artikulua.–*** Eskola-bilgunea, lurralde-banaketaren funtsezko unitatea den aldetik.

1.– Eskola-bilgunea izango da lurralde-banaketaren oinarrizko unitatea, hezkuntza-zerbitzuen plangintza eta antolaketari begira.

2.– Eskola-bilgunea, bere aldetik, eskola-zonaldetan bana daiteke, inguruabarrek horrela eskatzen badute. Eskola-zonaldea zerbitzu eta baliabideak antolatzeko azpiegitura nukleartzat har daiteke eta bere barne har ditzake udalerri baten zati bat edo bilgune bateko udalerri bat edo gehiago, beharrezkoa bada, horien hedadura edo ezaugarri demografikoak kontuan izanik. Eskola-zonaldeak malguak eta egokitzeko modukoak izango dira eta aldatu egingo dira, gertatzen diren aldaketa sozio-demografikoen arabera.

3.– Eskola-bilguneen eta, hala bada, eskola-zonaldeen edo udalerrien barruan ezarri beharko dira ikastetxe bakoitzaren eragin-eremuak, ikasleek sarbidea izateko aukera berdinak izan ditzaten eta etxetik gertu izatearen aldeko irizpidea aplika dadin.

4.– Eskola-bilgune, eskola-zonalde edota udalerri batean ikastetxe publikoak eta itunpeko ikastetxe pribatuak badaude, batzuentzat zein besteentzat eragin-eremu berdinak ezarriko dira.

5.– Eskola-bilgune, eskola-zonalde edo udalerriren batek derrigorrezko irakaskuntzen mailan eskaintzarik ez badu, Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritza bakoitzak erabakiko du zein ikastetxe publikotan izango duten bermatuta ikaspostua bilgune, eskola-zonalde edo udalerri horietako ikasleek.

6.– Horrez gain, ikasle horiek esleitu zaien ikastetxera dohainik garraiatuko direla bermatzeko egokia den modua finkatuko du. Garraio hori eskola-mapan zehaztuta dauden ikastetxeetara doazen ikasleei soil-soilik bermatuko zaie.

7.– Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasle batzuk, hirigunean bizi badira eta garraio publikoa (autobusa, metroa, tranbia edota trena) badute, batez ere, garraio hori finantzatuz gauzatuko da doakotasuna.

8.– Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak beste erakunde edo instituzio batzuekin koordinatzeko moduak aztertuko ditu, derrigorrezkoak ez diren hezkuntza-mailetako ikasleen garraioa erraztu ahal izateko.

***4. artikulua.–*** Ikastetxeak eta prestakuntza-ibilbideak atxikitzea.

1.– Atxikipena da bi ikastetxeren artean ezartzen den batasuna, baldin eta, hezkuntza-etapa desberdinak eman arren, ikastetxe bakartzat hartzen badira, ikasleak onartzeko orduan.

***Artículo 3.–*** La Circunscripción Escolar como unidad básica de división territorial.

1.– La Circunscripción Escolar será la unidad básica de división territorial y de planificación y ordenación de sus servicios educativos.

2.– La Circunscripción Escolar podrá a su vez ser dividida en zonas escolares cuando las circunstancias así lo requieran. La zona escolar se concibe como subestructura organizativa nuclear de servicios y recursos que puede aglutinar a una parte de un municipio o a uno o varios municipios de una circunscripción, cuando ésta, por su extensión o características demográficas, así lo requiera. Las zonas escolares serán flexibles y adaptables y variarán en función de los cambios socio-demográficos que se vayan originando.

3.– Dentro de las circunscripciones escolares y, en su caso, dentro de las zonas escolares o de los municipios deberán establecerse las áreas de influencia de cada centro a fin de garantizar el acceso del alumnado en condiciones de igualdad y a efectos de aplicar el criterio de proximidad al domicilio.

4.– Cuando en una circunscripción, zona escolar y/o municipio existan centros públicos y centros privados concertados, se establecerán las mismas áreas de influencia para unos y otros.

5.– En aquellos casos en que una circunscripción escolar, una zona escolar o un municipio no cuente con oferta educativa en alguno de los niveles obligatorios, cada Delegación Territorial de Educación establecerá el centro público en el que los alumnos y alumnas de dichas circunscripciones, zonas escolares o municipios tienen garantizada una plaza escolar.

6.– Asimismo, establecerá el mecanismo oportuno para garantizar igualmente el traslado, en condiciones de gratuidad, de dichas personas al centro público que les haya sido asignado. Dicha garantía de transporte será única y exclusivamente para el alumnado que acuda a los centros determinados en el Mapa Escolar.

7.– En la etapa de Educación Secundaria Obligatoria, y cuando el alumnado resida en zonas urbanas que dispongan de transporte público (autobús, metro, tranvía y/o tren), la gratuidad se garantizará, preferentemente, a través de la financiación de dicho servicio de transporte.

8.– El Departamento de Educación, Universidades e Investigación estudiará fórmulas de coordinación con otras instancias e instituciones en aras de facilitar el transporte del alumnado de los niveles educativos no obligatorios.

***Artículo 4.–*** Adscripción de centros e itinerario formativo.

1.– Se entenderá por adscripción la unión establecida entre dos centros que, impartiendo etapas educativas diferentes, a efectos de admisión del alumnado sean considerados un único centro.

2.– Zenbait kasutan atxiki ezin bazaie, ikasleei prestakuntza-ibilbideak proposatuko zaizkie, hau da, zenbait ibilbide akademiko proposatuko zaizkie, unibertsitatez kanpoko zenbait ibilbide akademiko osatu ahal izateko.

3.– Bilgune edota zonalde bakoitzean ibilbide akademiko desberdinak ezarriko dira. Ikastetxe publikoen sarean, bi bide daude prestakuntza-ibilbide horiek eratzeko: ikastetxe guztiak goragoko mailako beste ikastetxe batzuei atxikitzea eta unibertsitateaz kanpoko etapetan prestakuntza-ibilbideak ezartzea. Ekimen horiei esker, familia bakoitzak jakin ahal izango du, hezkuntza-sistemara sartu aurretik, zein izango den unibertsitateaz kanpoko etapetan eskolatzen hasten denetik eskolaketa bukatzen den arte bermatuko zaion ibilbidea.

4.– Antzeko prozedurak ezarri ahal izango dira itunpeko ikastetxe pribatuetan.

***5. artikulua.–*** Ikaspostuen eskaintza.

1.– Ikasturte bakoitzaren hasieran egingo da ikaspostuen eskaintza bat, bilgune, zonalde edo udalerri bakoitzaren eskolatze-premiei egokituko zaiena, eta kasu bakoitzean bermatuko da eskaintza nahikoa eta egokia izatea.

2.– Ikasle bakoitzak derrigorrezko hezkuntza-etapa bakoitzean etxetik gertu dagoen, diru publikoarekin lagundutako ikastetxe batean, ikaspostu bat izatea bermatuko da.

3.– Zenbait zonalde edo udalerritan, biztanleen hazkunde handia nabaritu bada, eta hazkunde horrek eskolatze-premiak areagotzea badakar, ikaspostu publikoak izango direla bermatuko da.

4.– Ahaleginak egingo dira ikaspostuen eskaintza dauden premietara egokitzeko, eta familien interesak baliabideen erabilera bikainarekin uztartuko dira, plangintza arduratsua eginez. Ikaspostuen eskaintza horrek ikasle orok dituen premia, interes eta espektatibak aintzat hartuko ditu, baita jarduera-sektore desberdinen premiak ere.

5.– Ikastetxeren batean ikaspostuen eskaerak ikaspostuen eskaintza gainditzen badu eta bilgune, zonalde edo udalerrian ikaspostu libreak dituzten ikastetxeak badaude, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak ikasle-soberakinak ikastetxe horietara bideratu ahal izango ditu, martxoaren 4ko 35/2008 Dekretuaren araberako baremazioa egin ondoren.

6.– Ikaspostuen eskaintza programatzerakoan, kontuan hartu beharko dira dauden ikaspostu guztiak, jende guztiak, diru publikoarekin lagundutako ikastetxe batean, ikaspostua lortzeko aukera izan dezan.

7.– Lanbide Heziketako hezkuntza-eskaintza ez da mugatuko eskola-bilgune jakin baten lurralde-eremura. Ikaspostuen eskaintza ikasleek adierazitako prestakuntza-lehentasunei eta jarduera-sektore desberdinen premiei egokituko zaie.

2.– En aquellos casos en los que la adscripción no sea posible, se propondrán al alumnado itinerarios formativos, es decir, recorridos académicos que le permitan completar su escolarización en las diferentes etapas educativas no universitarias.

3.– En cada circunscripción y/o zona se establecerán distintos recorridos académicos para la red de centros públicos, bien mediante la adscripción de los distintos centros docentes a otros de nivel superior, bien mediante el establecimiento de itinerarios formativos en las etapas no universitarias, de tal forma que toda familia conozca, previamente a la incorporación al sistema educativo, el recorrido académico que puede seguir desde el inicio hasta la finalización de la escolarización en las etapas no universitarias.

4.– En la red de centros privados concertados podrán establecerse procedimientos análogos.

***Artículo 5.–*** Oferta de puestos escolares.

1.– Cada comienzo de curso se realizará una oferta de puestos escolares ajustada a las necesidades de escolarización de cada circunscripción, zona o municipio, garantizando en cada caso una oferta suficiente y adecuada.

2.– Se garantizará que todo alumno y alumna disponga de una plaza escolar, en un centro sostenido con fondos públicos, en el entorno próximo a su domicilio en cada una de las etapas educativas obligatorias.

3.– En aquellas zonas o municipios en los que se constate un crecimiento significativo de población, si éste supone un aumento de las necesidades de escolarización, se garantizará la existencia de plazas públicas.

4.– Se procurará que la oferta de plazas escolares se ajuste a las necesidades armonizando los intereses de las familias con la utilización óptima de los recursos, mediante una planificación responsable. Dicha oferta de plazas atenderá las necesidades, intereses y expectativas tanto de alumnas como de alumnos, así como las necesidades de los diferentes sectores de actividad.

5.– Cuando en un centro de enseñanza la demanda de plazas supere la oferta y en la circunscripción, zona o municipio existan centros con plazas libres, el Departamento de Educación, Universidades e Investigación, previa baremación realizada de acuerdo con el Decreto 35/2008, de 4 de marzo, podrá derivar los excedentes de alumnado a dichos centros.

6.– A la hora de programar la oferta de plazas escolares habrán de considerarse todas las plazas existentes de tal forma que toda persona tenga acceso a una plaza escolar en un centro sostenido con fondos públicos.

7.– La oferta educativa de las enseñanzas de Formación Profesional no estará limitada al ámbito territorial de una determinada circunscripción escolar. La oferta de plazas se ajustará a las preferencias de formación manifestadas por el alumnado y a las necesidades de los diferentes sectores de actividad.

8.– Eskolatze-batzordeen bitartez, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak ahaleginak egingo ditu eta neurri egokiak hartuko ditu, fondo publikoek sostengatzen dituzten ikastetxeak erantzulekide izan daitezen ikasturtea hasi ondoren hezkuntza-sistemara sartu behar duten ikasleak eskolatzeko lanean.

9.– Era berean, kontrol-neurriak ezarriko ditu, ikasle horien artean gertatzen diren ikastetxe-aldaketak edonolako arrazoi diskriminatzaileengatik gerta ez daitezen.

10.– Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak erabakiko du zein ikastetxetan, publikoak nahiz itunpeko ikastetxe pribatuak izan, eskolatuko diren ikasleak, betiere gurasoei eta legezko tutoreei entzun ondoren, horrela ezarrita baitago martxoaren 4ko 35/2008 Dekretuaren 20. artikuluaren arabera.

***6. artikulua.–*** Ikastetxe publikoen motak.

1.– Araubide orokorreko irakaskuntzak ematen dituzten unibertsitateaz besteko ikastetxeen sare publikoan, honako ikastetxe hauek izango dira:

a) Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeak, 2 eta 12 urte bitarteko ikasleak eskolatzen dituztenak eta Haur Eskola publikoak beraiei atxikita dituztenak.

b) Bigarren Hezkuntzako ikastetxeak, 12 eta 18 urte bitarteko ikasleak eskolatzen dituztenak.

c) Lanbide Heziketako Ikastetxe Bateratuak.

2.– Ahal denean, Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntza Ikastetxe Publikoak sortzea sustatuko da, bertan 2 eta 16 urte bitarteko ikasleak edo, behar bada, 18 urte arteko ikasleak eskolatzeko. Ikastetxe horiek izango dute proiektu bat, hezkuntza-etapa desberdinak barne hartuko dituena, eta atxikita eduki ahal izango dituzte Haur Eskola publikoak.

3.– Aurreko ataletan ezarrita dagoenetik aparte, inguruabarrengatik gomendagarria bada, dekretu honetako I. eranskinean jasota daudenen moduko ikastetxeak egon daitezke.

4.– Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren menpekoa ez den ikastetxe publiko baten titularrak hala eskatu ondoren, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak ikastetxe hori Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren menpeko ikastetxe batekin edo gehiagorekin atxikitzeko edo prestakuntza-ibilbideak osatzeko aukera izango du, Ikastetxeen Zuzendaritzak horri buruz erabakitzen duenarekin bat etorriz.

5.– Ikastetxeen konfigurazioaren arabera, ikastetxeek hezkuntza-maila bakoitzeko ikastalde bat edo gehiago izan dezakete edo bestela ikastalde batean maila desberdinetako ikasleak izan. Azken ikastetxe hauek, landaingurunean kokatuta badaude eta gehienez guztira sei ikastalde badute, «Eskola Txikiak» deituko dira.

8.– El Departamento de Educación, Universidades e Investigación, mediante las Comisiones de Escolarización, velará y tomará las medidas oportunas para garantizar que todos los centros sostenidos con fondos públicos sean corresponsables en la escolarización del alumnado que deba incorporarse al sistema educativo una vez comenzado el curso escolar.

9.– Así mismo, establecerá medidas de control para evitar que los cambios de centro que se producen entre dicho alumnado sean por razones discriminatorias de cualquier tipo.

10.– Dicha escolarización se hará en los centros docentes, tanto públicos como privados concertados, que determine la Delegación Territorial de Educación, oídos los padres, madres, tutores o tutoras legales de dichos alumnos y alumnas, según lo dispuesto en el artículo 20 del Decreto 35/2008, de 4 de marzo.

***Artículo 6.–*** Tipos de Centros Públicos.

1.– Dentro de la red pública los centros docentes no universitarios que impartan enseñanzas de régimen general serán:

a) Centros de Educación Infantil y Primaria que escolarizan alumnado desde los 2 a los 12 años, que podrán tener adscritas a ellos Escuelas Infantiles públicas.

b) Centros de Educación Secundaria que escolarizan alumnado de 12 a 18 años.

c) Centros Integrados de Formación Profesional.

2.– Cuando las circunstancias lo permitan, se promoverá la creación de Centros Públicos de Educación Infantil, Primaria y Secundaria en los que se escolarice alumnado desde los 2 hasta los 16 años, o, en su caso, hasta los 18. Serán centros que contarán con un proyecto que integre distintas etapas educativas y que podrán tener también adscritas a ellos Escuelas Infantiles públicas.

3.– No obstante lo establecido en los apartados anteriores, si las circunstancias lo aconsejan, podrán existir centros de cualesquiera de los tipos recogidos en el anexo I del presente Decreto.

